

Txakurra, 32.000 urte (eta gehiago) dituen laguna

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Alizia Stürtze

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2011/11/27

Duela gutxi, XIX. mendean Belgikan aurkitutako kanido-garezur bat karbono 14az datatu dute eta txakurraren etxekotzea orain arte uste zen baino askoz lehenago gertatu zela frogatu dute. Fosil horrek 32.000 urte baditu ere, nahiko garbi omen dago "gizakiaren lagun onenak" duela 40-150.000 urte bereizi zirela. Hortaz, agian, gizaki modernoak lagun izan zuen planeta konkistatzeari ekin zionean.

Elezaharrek egia azaltzen al digute?

Ipar Amerikaren ipar-mendebaldeko kostaldean bizi diren tlingiten arabera, lehen txakurrak otsokumeak izan ziren, amaren zuloetik lapurtu eta gizakien ondoan ehizatzen hasiak. Txerokientzat, ordea, hasieran otsoa zen gizakiarekin, suaren ondoan, bizi zena. Txakurra, ordea, mendira bidali zuten. Alabaina, negua etorri zenean, hotza jasan ezinean, txakurra menditik jaitsi zen. Otsoa garaietara bidali zuten orduan eta ikaragarri ongi egokitu eta ugaritu zen. Munduan zehar, mito ugari daude txakurraren jatorriari buruz; azken finean, gizakiaren ondoan bizitzen jarri zen lehen animalia izan zen eta hori nola gertatu zen argitzeak jakin-mina piztu du, nola ez. Urteetan zehar, antropologo, arkeologo eta biologo ugari, Charles Darwin bera barne, erantzun bat bilatzen saiatu ziren, gogor saiatu ere, baina txakurraren jatorriaz atera zuten konklusioa oker zegoen: txakurrak ez dira basakanidoen barietate batetik (koioteak, hienak, txakalak, otsoak...) duela 15.000 urte sortutako adarra.

Eskeletoen morfologiaren konparazioak eta ikerketa genetikoek erantzun berbera ematen dute: txakurrak arbaso bat baino ez du, eta arbaso hori otsoa da. Eta, gainera, esan dugunez, duela 40-150.000 urte bereizi ziren. Aurkikuntza horiek arazo bat planteatzen dute: nola sortu ziren txakurrak otsoengandik? Hori, egun dakigunarekin, ezin argituzkoa da. Otso ar bat eta otso eme bat subespezie bat sortzen? Eboluzio naturalean oinarrituta, ezinezkoa da txakurrak otsoengandik naturalki bereiztea. Izan ere, mutanteek ezin izango zuten bizirik iraun. Eta, dakigunaren arabera, txakurra ez al da mutatu den otso bat, arbaso basatiengandik gizakiei komenigarri zaizkien ezaugarriak gorde dituen? Bestalde, gure paleolitoko arbasoek balentria hori egitea lortu bazuten, zer dela eta gaurko hazleek ezin dutela horixe bera birsturtu; alegia, bi otso nahasgabe gurutzatu eta txakur bat sortu ingeniariak biogenetikoaren teknikak erabili gabe? Enigmak hor dirau, desestali gabe.

Edonola ere, aspaldiko lagun

Misterio hori ebatzi gabe badirau ere, hainbat gauza badakizkigu. Txakurraren jatorriaz egin diren ikerketa genetikoaren arabera, adibidez, otso grisatik dator. Espezie hori aspaldi-aspaldikoa da eta garai haietan oso zabaldua omen zen, Europan, Asian, Ipar Afrikan eta Ipar Amerikan. Bestalde, mundu osoko 80 txakur-arrazaren DNA ikertu ondoren, gaurko txakur gehienak Ekialde Erdikoko txakur otzanduengandik datozela erabaki dute. Izan ere, haien DNAk lurralde hartako otsoenarekin zerikusi handiena omen du. Hala eta guztiz, beste txakur batzuen arrazaren bilakaera desberdina izan da. Txow-txow eta husky arrazako txakurren DNAk, adibidez, zerikusi handia du Txinako eta Asia ekialdeko otsoenarekin. Horrek esan nahi al du txakurren etxekotzea leku desberdinetan eta aldi desberdinetan gertatu zela?

Erantzuna edozein delarik ere, txakurra gure artean duela asko dagoela dudaezina da. Zalantzarik gabe, populazio paleolitiko guztiek ez zuten txakurrik izango; besteak beste, batzuek jana emateko soberakinik izango ez baitzuten. Alabaina, badirudi txakur etxekotuen ugaritzea duela 40.000-30.000 urte gertatu ziren eraldaketa iraultzaileekin batera gertatu zela: kobazuloetako pinturak, eskultura txikiak, berrikuntza teknikoak... Giza modernoaren ekarpena izango lirateke horiek, populazio garatuen isla, ingurunearen aldaketei egokitzeko gai ziren giza taldeen isla. Testuinguru horretan, txakurrak izatea gizaki modernoek beste gizakiei (neandertalei) aurrea hartzeko elementu izan al zen? Ehizatzeke ez zuten balio izango, handiak eta astunak baitziren. Bai, ordea, janaria eta ekipajea garraiatzeko. Hortaz, baliteke txakurrak baliagarriak izatea gizaki modernoaren lekualdatzeak errazteko. Izan ere, klima-aldaketak zirela kausa, garrantzitsu bilakatu zen leku batetik bestera mugitzeko gai izatea eta prestatua izatea... txakurrei esker, besteak beste.

Txakurrak garatzen dihoaz

Diotenez, txakurrak ezagutzeko eta txakurrek gizakiekin duten harreman konplexoan sakontzeko otsoen ohiturei begiratu behar zaie. Izan ere, otsoak oso taldekoiak dira, saldotan ibiltzen dira eta hierarkiak dituzte; alegia, jabea nor den bereizten badakite (gaizki hezitako txakurrak askotan ez dakiena). Taldean ibiltzeak bizirik irauteko balio die, baina baita harremanetaz gozatzeko ere.

Bestalde, txakurrek gizakien ondoren bizi izan dituzten urte luzeetan zehar, zeregin desberdinak bete izan dituzte: garraiatzeko, ehizatzeke, arrantzan egiteko, etxeak babesteko, gauzak eta pertsonak bilatzeko, itsuak laguntzeko, erabili ditugu. Eta, dirudienez, txakurren etxekotzea aurrera doa eta gaur jaiotzen diren zenbait txakurrek balio handiko ezaugarriak dituzte eta garatzeko gai dira.

Ba al zenekien?

- . Elezahar baten arabera, *Labrador Retriever* delako txakur-arraza igaraba bat eta *Ternua* txakur bat gurutzatetik dator. Horregatik dituzte biek gustu komunak: ingurune urtarraren eta igeri egitearen izugarri zaleak dira, hanka palmeatuak dituzte, ilajea irazgaitza dute eta haien isatsa luzea eta sendoa lema bezala erabiltzen dute.
- . Siberian azeriak etxekotzeko egiten ari diren esperimientuek txakurren eboluzioa hobeto ulertzeko balio dezakete.